

**** EKITALDIAK ****

« **IKIMILIKILIKLIK, JA Artzeren unibertsoa** » erakusketaren kariatara, hainbat mintzaldi antolatuak izanen dira Euskal Herriko Unibertsitateko Mikel Laboa Katedrarekin partaidetzan, Ez dok Amairu kultura mugimendu abangoardistaren hobeki ezagutzeko.

*Ez Dok Amairu 1965 eta 1972 urteen artean iraun duen Euskal Herriko kultura mugimendu abangoardista izan zen, lau urte lehenago abiatutako *Euskal Kantagintza Berriaren* barnean sortua. Hainbat artistek osatu zuten, abeslariak eta idazleak nagusiki : M. Laboa, JA Artze, B. Lertxundi, X. Lete, L. Iriondo, N. Basterretxea, J. Oteiza, ... Garai hortan hain azpiratua zen euskal kultura suspertu eta berritu zuen. Batez ere kultura arlokoa izan bazen ere, eragin handia izan zuen politikan, Francoren diktaduraren bukaerako garai hortan. Sekulako lan berritzailea egin zuten: euskaraz ordu arte egindako aipagarrienetakoa izan zen, eta mugarri bihurtu zen.*

Erakusketaren ESTREINALDIA

EHko Unibertsitateko Laboa Katedrako kidea den Juan Kruz Igerabideren sar hitza “**Ez dok Amairu: tradizioa eta abangoardia testuinguru kontraesankor batean**”

Data: 2016ko martxoaren 5a, larunbata – 17:00

MINTZALDIAK

***Ez dok Amairu oroitzuz* mintzaldi zikloa : Lau mintzaldi “Ez dok Amairu” kultur mugimenduaren deskubritzeko**

Euskal Herriko Unibertsitateko Mikel Laboa katedrak *Ez dok Amairu oroitzuz* mintzaldi zikloa proposatzen du, gaur egunetik atzera begirada bat proposatuz lau ikertzaile gazteren eskutik.

Antolaketa: Biarritzeko Euskara Zerbitzua eta Mediateka, EHko Unibertsitateko M. Laboa Katedra, Euskal kultur erakundea.

2016ko martxoaren 11a, ostirala – 18:00 “Ez dok Amairuren garaia: hurbilketa bat”
- **Ana Gandara.** Kultura-ideien ikuspegitik eginiko hurbilketa, doktore-tesia egin berrian landutako haritik

Ez Dok Amairuko kideen ekimenak euskal kulturari izaniko eragina ulertzeko, ezinbertzekoa da garaian nagusitu zen dinamika kulturalari erreparatzea; komunitatearen iraganeko kultura berreskuratzeaz gain, helburu berrietarako gaitu behar izan zen, bertzeak bertze. Berriki akituriko tesian oinarriturik deskribatuko ditugu Ez Dok Amairuko kideek eginiko ekarpen nagusia eta hark dinamika kultural nagusiarekiko izaniko harremana. Alderatze horrek argituko du komunitateari buruzko hausnarketak garai hartan izan zuen zamaren eta eraginaren izana.

Mintzaldiaren ondotik Jakes Abeberry Biarritzarraren lekukotasuna izanen dugu garai hortaz

2016ko martxoaren 17a, osteguna - 18:00 “Ez dok Amairu eta dantza” – Oier Araolaza. Ez dok Amairuk dantza tradizionalari eman zion lekua.
Oier Araolaza
Marian Arregi
Mikel Urbeltz (eskusoinua)

"Ez Dok Amairuk musika alorrean ekindako bidearen parekoa egin zuen dantzaren alorrean Argia dantzari taldeak. Hain zuzen ere, bateratsu hasi eta ibili ziren musikari eta dantzariak lehen urteotan, eta elkarren arteko kolaborazioak ohikoak izan ziren. Adibidez, besteak beste Trio Kemen-ekin, Xabier Leterekin eta Benito Lertxundirekin aritu zen Maria Angeles Arregi dantzari eta musikaria, eta Arregi bera Argia taldeko zuzendaritzan aritu zen 1965tik aurrera Juan Antonio Urbeltz-ekin elkarlanean. Ez dok Amairu eta dantzaren artean izan ziren loturak eta horien ekarpenak aipatuko ditugu".

Biarritz Culture-k antolatu Bi Harriz Lau Xori festibalaren kariatara.

2016ko martxoaren 24a, osteguna - 18:00 “Ez dok Amairu eta txalaparta” - Enrike Hurtado. Ez dok Amairuren jardunean txalapartaren eta musika garaikidearen arteko uztarketaren azterketa.

1972an, munduko bazter guztietatik etorritako ehunka artista eta musikari bildu ziren Iruñan. Han, Artze anaiek egin zuten txalaparta-saioak liluratuta utzi zituen John Cage eta Steve Reich, beste entzule batzuen artean. Zer dela eta maitemindu ziren musika garaikideko konpositore horiek urte gutxi batzuk lehenago galtzeko zorian egon zen baserri-giroko musika horretaz?

2016ko martxoaren 31a, osteguna – 18:00 "Euskal Herriaren irudikapena Benito Lertxundiren kantagintzan"- Imanol Artola.

Benito Lertxundiren ibilbide musikala 50 urte egitera doa. Denbora-tarte horretan artistaren musika asko aldatu da, garai sozio-politiko bera bezalaxe. Kantagintza gizartearekin hartu-eman bitartegabea dagoenez, kantuen edukiaren aldaketak, garai sozio-politikoaren aldaketa irudikatzen du. Nola irudikatzen du Lertxundik euskal nazioa? Zehaztu al litezke aro jakin batzuk bere kantagintzan? Zein garrantzia hartzen du Iparraldeak irudikapen horretan?